

# Mahaia neurtu eta pisatu behar dugu.



# Neurtu

- Zerbaiten neurriak hartzea:
  - Mahaiaren luzera neurtu dugu.
- Zerbaiten tamaina adieraztea:
  - (?) Zenbat neurtzen du mahaiak?
  - (?) Mahaiak 2,5 metro neurtzen ditu.





# Neurtu

● Zerbaiten tamaina adierazteko, honako esapide hauek hobesten dira euskara batuan:

- Zer luzera du mahaiak?
- Zer zabalera du mahaiak?
- Zenbat luze da mahaia?
- Zenbat zabal da mahaia?
- Zenbat du luzean/luzeran mahaiak?
- Zenbat du zabalean/zabaleran mahaiak?
- Zenbat da luzean mahaia?
- Zenbat da zabalean mahaia?



# Neurtu

● Zerbaiten tamaina adierazteko, honako esapide hauek hobesten dira euskara batuan:

- Mahaiak bi metroko luzera du.
- Mahaiak 50 cm-ko zabalera du.
- Mahaiaren luzera bi metro da.
- Mahaiaren zabalera 50 cm da.
- Mahaia bi metro luze da.
- Mahaia 50 cm zabal da.
- Mahaiak bi metro **du/ditu** luzean (luzeran).
- Mahaiak 50 cm **du/ditu** zabalean (zabaleran).
- Mahaia bi metro da luzean.
- Mahaia 50 cm da zabalean.





# Neurtu

## Beste adibide batzuk:

- Biltegia 85 m luze, 37 m zabal eta 3,5 m garai da.
- Biltegiak luzeran 85 m, zabalera 37 m eta garaieran 3,5 m ditu.
- Harresiak 5 metro garai eta 1,70 lodi dira.
- Neurri hauek izango dituzte: 35 cm zabal, 45 cm garai eta 2 cm lodi.
  
- Zer neurri du angelu lauak?
  - 180° du/ditu.
- Zenbat gradu du/ditu angelu zorrotzak?
  - 90° baino gutxiago du/ditu.



# Pisatu

● Zenbat pisatzen du motorrak?

- Astunenak 5.900 kilo pisatzen du/ditu.

(Analogiaz, “zenbat astun da?” egin daiteke; okerra da, baina, esapide hori.)





# Pisatu

• Beste esapide batzuk:

• Zer pisu dute motorrek?

• Astunenak 5.900 kilo **ditu/du**.

• Zenbat da haren pisua?

• Haren pisua laurogei bat kilo da.



# Pisatu

• Beste esapide batzuk:

• Pisu izan (Hiztegi Batua)

- *Beste bat ekartzen diote, hamabi kintal pisu duena.*
- *Eman dezagun ororen artean pisu dutela hamar kilo.*

